


Euskal Autonomia Erkidegoko
**Mugikortasunaren
azterlana**

2011



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAJO SAJLA

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

Euskal Autonomia Erkidegoko Mugikortasunaren azterlana

2011



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

 araldi-k sortutako produktua,  eta  -ren laguntzarekin.

Ikuskatzea eta zuzendaritza: OTEUS- Euskadiko Garraio Behatokia



Argitaraldia:

1.a, 2012ko abendua

Ale-kopurua:

1.000 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila

Edita:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:

Miren Unzurrunzaga Schmitz

Inprimaketa:

Ulzama Gráficas, S.L.

D.L.: VI 418-2012

Hau eta beste txosten zein ikerketak Eusko Jaurlaritzaren webgunean argitaratuta daude, OTEUS-Euskadiko Garraio Behatokia:
<http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-4833/eu/>

AURKEZPENA

Biztanleriaren mugikortasun jarraibideak ezagutzea funtsezkoa da, garraio politikak planifikatzerako orduan. Etxebizitza, Herri lan eta Garraio Sailak aldizkako mugikortasun inkestak burutu ditu Euskadin.

Inkesta hauen emaitzetan oinarrituta honako txostena landu da. Bertan, 2011. urtean Euskadin bizi izan diren pertsonen mugikortasun parametroak jasotzen dira.

Emaitzek, Euskadin ematen diren mugikortasun jarraibideen oraina eta bilakaera aztertzeko eta, era berdinean, pertsonen mugikortasunean eragina duten politikak baloratzeko mugikortasun adierazle batzuk zehazteko balio behar digute.

Horrela, txosten honen edukia, gure erakunde guztien, zein, interesa lukeen edozein elkarte eta pertsonen eskura ipintzen dugu.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa 2011 honetan, aurretik egindako txostenetan bezala, gure Erkidegoko mugikortasuna jasotzen dugu, Lurralde Historikoetan banatuta, eta zenbait datu berriz, eskualdeka eta hiriburuka. Hala nola, mugikortasunaren hainbat aspektu zehazten ditugu, mugitzeko modu eta arrazoien baitan nagusiki.

Lan honekin mugikortasunaren ezagutzan lagundu nahi dugu eta, azken finean, irisgarritasun unibertsalaren hobekuntzarako politiketan aurrera egitea, nola, mugikortasun eredu jasangarriagoak sortzea dira gure helburuak.

D. Iñaki Arriola López

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailburua

ESKERRAK

Lan hau garraioaren arloko hainbat pertsonen, agente instituzional eta enpresarien kolaborazioari esker izan da posible burutzea, non eskatutako informazioa erraztu duten eta horietan oinarrituz lortu diren txosten honetan agertzen diren emaitzak.

Lehenik eta behin, Euskal Autonomi Erkidegoko (EAE) biztanleriari eta kanpoko pertsona orori eman nahi genizkioke eskerrak, telefono bidezko edota terminaletan (hiru hiriburuetakako autobus geltoki, tren geltoki eta aireportuetan) zuzendutako inkestei erantzuteko denbora tarte hartzearen. Euren parte hartzerik gabe ez baitzen izango posible EAEko mugikortasunaren karakterizazioa.

Bigarrenik, errepidezko, airezko eta trenbidezko bidaiarien garraioetako enpresa kontzesionarioen eta Garraio Autoritateei ahalegina aitortu, izan ere, EAEko linea edo zerbitzu ezberdinen erabiltzaileen zenbatekoaren inguruko datuak erraztu baitituzte. Informazio honek, egoiliarrek erantzundako inkestetan lortutako emaitzak errealitatearekin alderatzea ahalbidetu du, eta baita modu bakoitzeko jasotzaileak egokitzea ere, modu horretan, ikerketa honek aurkezten dituen datuak egungo EAEko mugikortasunaren errealitatearen irudi garden eta leialenak izan daitezten.

Azkenik, ezin gaitezke ahaztu gidariak inkestei erantzuteko euren instalazioak edo horietako zatiren bat utzi duten enpresez, hala nola, gasolindegia eta autopistako kontzesionarioez, beti ere, gainontzeko gidariei eta azpiegituretako erabiltzaileei arazorik ez sortzea bermatuz.

Horiei guztiei gure eskerrik beroenak euren lankidetzagatik eta ikerketa hau burutzea errazteagatik.

AURKIBIDEA

	Orrialdea
1. SARRERA	9
2. METODOLOGIA	11
2.1. Laginaren egitura eta landa-lanak egin ziren datak.....	11
2.2. Erreferentziazko populazioaren definizioa	11
2.3. Jasotzaileen kalkulua	15
3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EGOILIARREN MUGIKORTASUN OROKORRAREN KARAKTERIZAZIOA.....	19
3.1. Joan-etorrien banaketa modalitatearen arabera.....	25
3.2. Motorizatu gabeak	32
3.2.1. Oinez.....	32
3.2.2. Bizikleta	33
3.3. Motorizatua.....	34
3.3.1. Kolektiboak	34
3.3.2. Indibidualak.....	40
3.4. Arrazoen arabera.....	43
3.4.1. Lana	45
3.4.2. Aisia	46
3.4.3. Kudeaketa pertsonal eta familiarrak	47
3.4.4. Ikasketak.....	48
3.4.5. Erosketak	49
3.5. Mugikortasunaren azterketa sexuaren arabera.....	51
3.6. Mugikortasunaren azterketa garraibide motorizatueterako sarbidearen arabera.....	53
3.7. Mugikortasunaren azterketa familiaren tipologiaren arabera	55
3.8. Lurraldeen arteko azterketa	57
3.8.1. Araba	60
3.8.2. Bizkaia	63
3.8.3. Gipuzkoa	66
3.8.4. Helmuga hiru hiriburuetan duten joan-etorriak	69
4. BILAKAERA 2003-2011	73
5. ONDORIOAK	81
6. TERMINOEN GLOSARIOA.....	83
7. ERANSKINAK	85

1.

SARRERA

Ikerketa honen helburu nagusia EAEko egoiliarren mugikortasunaren inguruko egungo jarraibideak lantzea da, alegia, nola mugitzen diren, behar hauei zein irtenbide ematen dizkieten, joan-etorriak edo desplazamenduak zein arrazoik sortuak diren, lurralde ezberdinen artean zein erlazio ezartzen diren... hori guztia, helburu bikoitz batekin. Alde batetik, abian jarri diren mugikortasun politika zehatzek aipatu-tako aldagai hauengan zein eragin izan duten, esaterako, bidegorrien sorrerak edo hedapenak, garraio zerbitzu publiko berrien abiarazteak eta azpiegitura berrien eraikuntzak, besteak beste. Bestetik, bildu-tako datuetan oinarrituz, lurralde guztian jasangarritasun eta irisgarritasun handiagoa bultzatzen dituz-ten mugikortasun politikak zehazteko beharrezko informazioa izatea.

Horrez gain, 2003 eta 2007. urteetan abiatutako inkesta prozesuei jarraipen bat eman nahi zaie, EAEko mugikortasunaren jarraibide eta ereduak jazotako aldaketen inguruko ebaluazioa egiteko beharrezko in-formazioa eskainiz.

Dokumentua, sarreraz gain, hiru kapitulu nagusien inguruan egituratzen da. Bigarrenak, egoiliarri zuzen-dutako inkesta eratzeko erabilitako metodologiari buruz dihardu.

Hirugarren kapituluak, eta garrantzitsuenak, helburu gisa biztanleria euskaldunaren mugikortasunaren eredu-a ezaugarritzea du, non honako aldagaiak aurkitzen diren: garraiatzeko erabiltzen diren modu ez-berdinak, joan-etorrien arrazoiak, sexuaren araberako mugikortasuna, ibilgailu motorizatueterako sarbi-de mailak, lurraldeko azterketa eta familia unitatearen nolakotasuna edo tipologia. Gainera, Lurralde Historiko bakoitzaren inguruko barne desplazamenduen inguruko azterketa egiten da, hau da, probintzi beraren barruan aurkitzen diren lekualdaketen abiapuntu eta helmuga, eskualde arteko erlazioak eta hiri-buru bakoitzeko mugikortasunaren ezaugarriak.

2007ko txostenean bezala, 2003 eta 2007ko datuak abiapuntutzat hartuz, oinarritzko aldagaien garape-naren inguruko atal bat erantsi da. Informazioa modu jakinean egituratu da zeinak segida historiko homo-geneoak eratzea ahalbidetzen duen, eta non beharrezkoa izan den multzokatze jakinez baliatzea meto-dologikoki posible izateko. Modu honetan, hiru inkesten arteko aldaratzea egingarria bihurtu da. Honek, atal honetan erakutsitako datu batzuk aurreko kapituluarekin bat ez etortzea ekar dezake (Honek ekar dezake atal honetan agertutako daturen bat aurreko kapituluarekin bat ez etortzea) izan ere, multzokatze ezberdinak egiten dira hiru kasuen arteko alderaketa bermatzeko. Azkenik, ondorioei zuzendutako atal bat eransten da non inkesta honetan bildu diren emaitza esanguratsuenak biltzen dituen.

2.

METODOLOGIA

2.1. Laginaren egitura eta landa-lanak egin ziren datak

Egoiliarrei zuzendutako inkestaren helburua, ikerketa denboran Euskal Herrian eurek duten mugimendua ezaugarritzea da. Inkesta telefonikoaz dihardugu non familietako informazioa, familiako partaideek eta horiek egiten dituzten joan-etorriak, biltzen diren.

Populazioa 6 urtetik gorako pertsonengan ezarri da. Adingabekoen informazioa familiako arduradunen bitartez eskuratu da. Motorizatu eta motorizatu gabeko gutxienez bost minutuko iraupeneko joan-etorri ororen inguruko informazioa bildu da, ikasketa eta lan arazoiek sortutako joan-etorrienak izan ezik, izan ere, horiek joan-etorrien iraupena kontuan hartu gabe erregistratu baitira. Erakutsitako desplazamenduak lan egun batekoak dira.

Alor honetako lanak 2011ko apiriletik ekainera arte gauzatu dira.

Informazioaren bilketa eta trataera helburu estatistikoekin egin denez, ezinezkoa da inkestan parte hartu duten pertsonak identifikatzea. Datu pertsonalak inolaz ere ez dira erabili helburu jakin batekin, ez dira zabaltu edota argitaratu, ez modu zuzenean ezta zeharkakoan ere; beti ere, abenduaren 13ko Izaera Pertsonaleko Datuen Babesaren 15/1999 legeak dioena betez, eta baita ere, ekainaren 11eko Errege Dekretua 994/1999 betez, zeinetan datu pertsonalak gordetzeko erabilitako fitxategi automatizatuei egiten baitzaion erreferentzia.

2.2. Erreferentziako populazioaren definizioa

Populazioaren definizio zehatza egitea Funtsezkoa da jarraian laginaren ustiapenetik lortutako datuekin zehaztutako populazioari egingo zaion jasotzeagatik. eragiketa honen azken helburua, euskal autonomi erkidegoko biztanleriaren mugimenduak ezagutzea da, eta populazioak egindako bidaien eta joan-etorrien balioespena zehazten eta ezaugarritzen da.

Euskal Autonomi Erkidegoan burutzen diren bidaietatik, hiru Lurralde Historikoetako egoiliarrek eginga dakoetara mugatu da. eta zedarripen honetan bere balioespena egin da. egin beharrekoa biztanleria ikertzea da, horrela, egiten dituzten bidaien nondik norakoak ezagutu ahal izateko. Helburu den azken subjektu batetik, bidaiak, informazio igorle den subjektu batera pasatzen da, biztanleria. Modu honetan, biztanleria hasiera batean erreferentziako populazio bilakatzen da, zeina, laginean adierazi behar baiten, azkenik, burutzen diren bidaien balioespena egiteko.

METODOLOGIA

Izaera soziodemografikoa duten eta finkatuta dauden eragiketa estatistiko zehatzei erreferentzia eginez, honako populazioa euskal autonomi erkidegoko biztanleria egoiliarren etxebizitza familiar¹ gisa definitzea proposatu zen. biztanleria egoiliarren hautaketa, administrazioak aldiro kontrolatua zein eguneratua, instituzio estatistikoek proiektatutako biztanleria izatean oinarritu da.

Azkenik, objektu den biztanleriaren sarbidea etxebizitza familiarren bitartez egingo da.

HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

Lagin teorikoaren hautaketan, banaketa geografikoaren erro karratuarekiko proportzionala den finkatzea duen laginketa estratifikatutako metodo bat aplikatu da (estratua)

Lehenagoko eroldaren inguruko informazioari esker Populazioaren aurreko estratifikazio BAT ezarri da non barnealdetik oso homogeneoak eta beraien artean oso heterogeneoak diren. Aipatutako estratifikazio hau eremu geografiko jakinen errepresentazio estatistikoaren interesaren arabera ere defini daiteke. zehaztutako Maila bakoitzean tamaina jakina ezarri da populazioko etxebizitza familiarren kolektiboaren baitan.

Etxebizitza lagineko estratu bakoitzeko hautaketa, etxebizitza lagin estratu multzoa ordezkatzeko helburu izanik. honako hautaketa zozketa sistematikoaren arabera egin da eta ausazko hasiera izan du non eskura izandako telefonoen datu basetik abiatu den.

Etxebizitzeari dagokienez, 6 urtetik gorako egoiliar guztiei pasa zaie inkesta (azpimarratzekoa da hautatutako adingabekoen informazioa euren familiako arduradunei esker eskuratu dela: guraso, tutore...).

EREMU EDO MAILAKO EZARPENA

Estratifikazio honen helburu nagusia -zonifikazioa- lagin multzoaren aurre banaketa egitea da horrek bermatuko baitu eremu edo maila bakoitzeko gutxieneko ordezkartza, eta hortaz, sortzen diren bidaiena ere.

Noski, proportzionaltasunarekin apurtzen duten ezarritako laginak estimazioari dagokion fasean kokatuko lirateke.

Aurretiko proiektuari jarraipena emateko helburuarekin zonifikazio gisa 20 eskualdetako erlazio ofiziala erabiltzen da:

- Araba: Arabako Bailarak, Arabako Lautada, Arabako Mendialdea, Errioxa Arabarra, Kantauri Arabarra eta Gorbeialdea.
- Bizkaia: Arratia-Nerbioi, Bilbo Handia, Durangaldea, Enkarterri, Gernika-Bermeo, Markina-Ondarroa eta Plentzia-Mungia.
- Gipuzkoa: Bidasoa Beherea, Debarrena, Debagoiena, Donostialdea, Goierri, Tolosaldea eta Urola Kosta.

¹ Eraikuntza kolektiboetan, zaharren egoitza eta antzerakoetan bizi den herritargoa, ez da kategoria honen barnean sartzen.

METODOLOGIA

Aurreko atalean lez, interesgarria da lurralde bakoitzeko zonaldean hiriburuen bereizketa egitea, hiriburuak gune bat bezala esleituko dira izatez dagokion horretatik banatuz: Gasteiz eta gainontzeko Arabako Lautada; Bilbao eta gainontzeko Bilbo Handia, zein, Donostia-San Sebastián eta gainontzeko Donostialdea.

2009ko datuen arabera, euskal autonomi erkidegoko biztanleriaren kopurua ez zen 2.150.000 pertsonetara iristen, 970.000 etxebizitza familiarren errolda baino pixka bat gutxiago. beren banaketa eremu geografikoaren arabera (hiriburuen bereizketatik sortzen diren 23 eremuak) honakoa da:

Taula 1. **2009ko EAEko biztanleriaren banaketa**

Eskualdeak / Lurraldeak	Erreferentziako Populazioa		
	Biztanleria, 2009	Etxebizitzak, 2009	Banaketa portzentuala %
01. Arabako Bailarak	5.654	4.366	0,5
02a. Vitoria- Gasteiz	232.020	99.351	10,2
02b. Gainontzeko Arabako Lautada	15.351	8.491	0,9
03. Arabako Mendialdea	3.172	2.640	0,3
12. Errioxa Arabarra	11.515	8.210	0,8
16. Kantauri Arabarra	33.834	15.238	1,6
15. Gorbeialdea	8.240	4.275	0,4
04. Arratia- Nerbioi	22.774	11.430	1,2
06a. Bilbao	352.719	154.541	15,9
06b. Gainontzeko Bilbo Handia	518.676	221.553	22,9
10. Durangaldea	95.816	41.699	4,3
11. Enkarterri	30.882	14.794	1,5
13. Gernika- Bermeo	45.336	23.090	2,4
17. Markina- Ondarroa	26.688	13.513	1,4
18. Plentzia- Mungia	51.833	27.518	2,8
05. Bidasoa Beherea	76.465	33.801	3,5
07. Debabarrena	54.347	26.689	2,8
08. Debagoiena	61.231	26.614	2,7
09a. Donostia-San Sebastián	181.760	83.772	8,6
09b. Donostialdea	137.032	59.957	6,2
14. Goierri	66.257	30.901	3,2
19. Tolosaldea	46.045	21.368	2,2
20. Urola Kosta	70.407	35.665	3,7
Guztira	2.148.054	969.476	100,0
01. ARABA	309.786	142.571	14,7
20. GIPUZKOA	693.544	318.767	32,9
48. BIZKAIA	1.144.724	508.138	52,4

Iturria: INE

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EGOILIARREN MUGIKORTASUN OROKORRAREN KARAKTERIZAZIOA

Aurreko eragiketan, hain zuzen, 2006an eginikoan, laginen finkatzea aurreikusitako zonalde geografikoe-tatik helburuko tamainaren banaketa proportzional baten bidez burutu zen.

Egungo eragiketan laginaren tamaina 4.500 galdetegiez osatuta dago eta «eremu bakoitzean dagoen etxebizitza kopuruaren erro karratuari zor zaion proportzionaltasunari kasu eginaz, eremu geografiko bakoitzeko etxebizitza kopurua finkatzea» erabili da. Aztertutako eskualde bakoitzaren ordezkartza ber-matzeko ordea, banaketa egokitu behar izan zen.

Hurrengo taulan 4.500 etxebizitzetako laginaren tamainaren banaketa aurkezten da, «espero den akats teorikoko» informazioa barne hartuz.

Taula 2. **Laginaren tamainaren banaketa EAEko Mugikortasun inkesta 2011**

Eskualdeak / Lurraldeak	Erreferentziako populazioa		Etxebizitzen finkatzea	Akats teorikoa %
	Etxebizitzak, 2009	Biztanleria, 2009		
01. Arabako Bailarak	4.366	5.654	104	9,8
02a. Vitoria- Gasteiz	99.351	232.020	320	5,6
02b.-Gainontzeko Arabako Lautada	8.491	15.351	104	9,8
03. Arabako Mendialdea	2.640	3.172	104	9,8
12. Errioxa Arabarra	8.210	11.515	104	9,8
16. Kantauri Arabarra	15.238	33.834	136	8,6
15. Gorbeialdea	4.275	8.240	104	9,8
04. Arratia- Nerbioi	11.430	22.774	120	9,1
06a. Bilbao	154.541	352.719	400	5,0
06b. Gainontzeko Bilbo Handia	221.553	518.676	480	4,6
10. Durangaldea	41.699	95.816	224	6,7
11. Enkarterri	14.794	30.882	136	8,6
13. Gernika- Bermeo	23.090	45.336	168	7,7
17. Markina- Ondarroa	13.513	26.688	128	8,8
18. Plentzia- Mungia	27.518	51.833	184	7,4
05. Bidasoa Beherea	33.801	76.465	200	7,1
07. Debarrena	26.689	54.347	184	7,4
08. Debagoiena	26.614	61.231	184	7,4
09a. Donostia-San Sebastián	83.772	181.760	296	5,8
09b. Donostialdea	59.957	137.032	264	6,2
14. Goierri	30.901	66.257	192	7,2
19. Tolosaldea	21.368	46.045	160	7,9
20. Urola Kosta	35.665	70.407	208	6,9
Guztira	969.476	2.148.054	4.504	1,5
01. ARABA	142.571	309.786	976	3,2
20. GIPUZKOA	318.767	693.544	1.688	2,4
48. BIZKAIA	508.138	1.144.724	1.840	2,3

Iturria: INE

TELEFONOAK HAUTATZEKO METODOA (ETXEBIZITZAK)

Lehenago aipatu bezala, informazioa jasotzeko erabili den sistema inkesta telefonikoarena izan da. Honak etxebizitzaren hautaketa guztiz ausazkoa egitea ahalbidetu du, zonalde geografiko bakoitzean eskura ziren telefono guztietatik. Hala ere, kasu honetan erreferentzi gisa, soilik ordezkaritza telefonoa eskualde bakoitzeko ZUEN etxebizitza familiarrena izan da.

Aplikatu den hautaketa sistema ondoren azaltzen dena izan da:

- Eskura dauden ESKUALDE bakoitzeko telefono zenbaki guztien ordena
- Laginketa zatiaren (LZ) zehaztapena, aurreikusitako etxebizitzak lortu arte areagotu nahi den konstantea. (Oinarrian dauden etxebizitza-telefonoen kopuruaren eta eskualde horretarako aurreikusitako inkesta kopuruaren arteko zatidura eginez lortzen da).

$$LZ = \frac{\text{oinarriko etxebizitza kopurua}}{\text{inkesta kopurua}}$$

- Hasierako puntuaren (HP) zehaztapena. Adibidez horrela definitua:

$$HP = \frac{LZ}{2}$$

- Etxebizitzaren hautaketa – telefonoak ondorengo jarraibideen arabera:

- ✓ Hasierako puntuan kokatu etxebizitza (HP)
- ✓ Hurrengo puntuan kokatu etxebizitza $HP + LZ = (1+1/2) LZ$
- ✓ Hurrengo puntuan kokatu etxebizitza $HP + 2LZ = (2+1/2) LZ$
- ✓
- ✓ Hurrengo puntuan kokatu etxebizitza

$$(N - 1 + \frac{1}{2}) LZ = (N - \frac{1}{2}) LZ$$

Prozesu honetan, ordezkoak diren elementuak ere hautatu dira non hauek, arrakastarik gabeko titularren inkesten kasuetan erabili beharko diren.

2.3. Jasotzaileen kalkulua

EAEko biztanleei egindako inkestaren jasotzaileen kalkulua bi fasetan egin da:

- **Etxebizitza eta norbanakoen hasierako jasotzaileak.**

Bereizitako bi jasotzaile kalkulatu dira:

- ✓ Etxebizitzako jasotzaileak: bere erabilera, unitate familiarreko aldagaietan jasotako informazioaren hedapenaren arabera mugatzen da. laginaren diseinuan erabilitako Banaketa geografiko bakoitzean, bere sorkuntzarako erreferentzia gisa 2009ko abenduko 31 arte zeuden etxebizitzaren populazioa hartu da.

- ✓ **Norbanako jasotzaileak:** unitate familiar bakoitzaren partaideentzat kalkulatuak. biderkatzaile honek erreferentzia gisa euskal autonomi erkidegoko biztanleria hartzen du, 2009ko abenduaren 31 baino lehenagoko 6 urte baino gehiagokoak eta eskualde bakoitzean estratifikazio aldagai gisa, norbanakoaren adina eta sexua hamabost egunez behingo multzotan erabiltzen du.

- **Desplazamendu jasotzaileak**

Garraio operadoreen datuak erreferentzia gisa erabiliz, behatutako joan-etorrietan oinarrituz, aurrekoen zuzenketa gisa kalkulatu dira.

Informazioa bildu ostean eta datuen ustiapena egin aurretik nahitaezkoa da sortzen diren proportzionaltasun desorekak birdoitzea:

- Laginaren diseinuan bertan; eta
- Lan eremuan zehar huts egindako kontaktuen ordezkartzak sortzen dituen desdoitzeak.

Hori egiteko ohiko modua, haztapan-biderkatzaile baten bidezko kalkulua da non informazioa azaldu aurretik laginaren datuetan ezartzen den.

- **Etxebizitza jasotzaileak**

Jasotzaile hau etxebizitzetako populazioa sortzeko kalkulatu da, erreferentzi gisa laginaren diseinuaren eragiketan erabili diren datuak hartuz, 2009ko abenduaren 31an ESKUALDE BAKOITZEAN zeuden etxebizitza kopurua.

Hala kontsideratu ezker, bere helburua etxebizitza-familiei zuzendutako galdetegietatik ateratutako datuen ustiapena egitea da, alegia, etxebizitza eta familiari dagozkien erantzun multzoa.

- **Norbanakoen hasierako jasotzailea**

Lehen aipatu den bezala, egingo diren bidaien balioespena egiteko, ordezkaturiko den erreferentziazko populazioa biztanleriarena da. arrazoi horregatik, galdetegia egoiliarrei zuzentzen zaien kasuan, biderkatzaile bat kalkulatu da sexua, adina eta eskualdea aldagaiak zehaztuz eta INE instituzioan eskuragarri dauden udalerrietako errolden ustiapen estatistikoko datuetatik abituz. (2010eko urtarrilaren 1eko emaitzak).

Hasierako jasotzaile hauek, inkestatutako norbanakoentzako lortuak, hauek burututako joan-etorri eta igaroaldi guztiei aplikatuko zaizkie.

- **Desplazamenduaren zuzendutako jasotzailea**

Aurreko norbanakoen jasotzaileak inkestan jasotako desplazamenduetan aplikatzean desdoikuntza batzuk ikusten dira garraio operadoreek emandako informazioarekin: Lanegunetan bidaiatzen duten pertsonen ingurukoak (2011n eskuragarri) eta foru diputazioek emandako edukieren informazioaren ingurukoak.

Aurrez egindako eragiketek, informazio guzti honekin batera, hasierako jasotzailean zuzenketa batzuk eragiten ditu, zeina, ondoren informazioaren ustiapenerako erabiliko baiten.

Berriz gertatzen diren joan-etorriak batez besteko lanegun bati dagozkionak dira.

METODOLOGIA

Taula 3. **Datuak eskualdeko eta hiriburu bakoitzeko 2010eko urtarrilaren 1ean**

LH	Eskualdea	Biztanleak
Araba	Arabako Bailarak	5.753
	Gainontzeko Arabako Lautada	16.075
	Arabako Mendialdea	3.179
	Errioxa Arabarra	11.360
	Inguruko Mendiak	8.507
	Kantauri Arabarra	34.231
	Vitoria- Gasteiz	238.247
	Guztira	317.352
Gipuzkoa	Bidasoa Beherea	77.402
	Debarrena	55.007
	Debagoiena	61.862
	Donostialdea	139.602
	Goierri	67.948
	Tolosaldea	47.405
	Urola Kosta	72.531
	Donostia-San Sebastián	185.506
	Guztira	707.263
Bizkaia	Arratia- Nerbioi	23.322
	Bilbo Handia	522.614
	Durangaldea	96.642
	Enkarterri	31.474
	Gernika- Bermeo	46.056
	Markina- Ondarroa	26.566
	Plentzia- Mungia	53.863
	Bilbao	353.187
	Guztira	1.153.724
Guztira	2.178.339	

Iturria: INE

3.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EGOILIARREN MUGIKORTASUN OROKORRAREN KARAKTERIZAZIOA

Sei urtetik gorako euskal biztanleria ia osoak (%89,5) batez besteko lanegun batean gutxienez desplazamendu² bat egiten du eta soilik biztanleriaren gainontzeko %10,5ek ez du egiten joan-etorririk.

Biztanleriaren erdiak baino gehiagok (%64,3) bi joan-etorri egiten ditu eta %18ak lau bidai burutzen ditu.

Taula 4. **Biztanleriaren banaketa burututako joan-etorrien arabera**

Joan-etorrien kopurua	Biztanleak	%
1	31.145	1,5
2	1.307.275	64,3
3	55.174	2,7
4	366.560	18,0
5 edo gehiago	60.266	3,0
Joan-etorririk ez	212.698	10,5
Guztira	2.033.118	100,0

Hiru Lurralde Historikoetan praktikoki patroi bera mantentzen da. Hiru kasuetan joan-etorririk egiten ez duten pertsonen portzentajea %10aren inguruan kokatzen da, eta biztanleriaren %60ak bi joan-etorri egiten ditu.

Taula 5. **Biztanleriaren karakterizazioa mugikortasunaren tipologiaren arabera**

Joan-etorri kopurua	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Guztira	
	Biztan.	%	Biztan.	%	Biztan.	%	Biztan.	%
1	4.376	1,5	15.993	1,5	10.775	1,6	31.145	1,5
2	187.335	63,4	711.643	65,9	408.297	62,1	1.307.275	64,3
3	9.259	3,1	25.487	2,4	20.428	3,1	55.174	2,7
4	51.033	17,3	183.902	17	131.625	20	366.560	18,0
5 edo gehiago	11.362	3,8	28.504	2,6	20.399	3,1	60.266	3,0
Joan-etorririk ez	32.188	10,9	114.844	10,6	65.666	10,0	212.698	10,5
Guztira	295.554	100,0	1.080.375	100,0	657.190	100,0	2.033.118	100,0

² Desplazamendu deituko diogu oinez 5 minutu edo gehiagoko iraupena duen edozein joan-etorri eta garraio molde motorizatuez egiten direnei, iraupena kontuan izan gabe.

EAEen egoiliarrak diren pertsonen lanegun batean guztira 6.200.572 joan-etorri egiten dituzte, eta horrek biztanleko batez besteko 3,05 joan-etorri egiten direla suposatzen du.

Taula 6. **EAEko egoiliarren joan-etorrien banaketa jatorri eta helmuga geografikoaren arabera**

Probintzia Abiapuntua	Probintzia Helmuga				
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Kanpoko	Guztira
Araba	853.214	40.757	16.971	13.230	924.172
Bizkaia	40.329	3.055.339	42.513	22.116	3.160.297
Gipuzkoa	18.151	42.183	1.976.745	15.732	2.052.811
Kanpoko	17.665	24.397	17.449	3.779	63.291
Guztira	929.359	3.162.677	2.053.679	54.857	6.200.572

Euskal biztanleriaren mugimenduak barne izaera sendoa du. Joan-etorrien %98,2a EAEren barruan burutzen dira, hau da, bidaia horien jatorri eta helmugak lurralde beraren baitan kokatzen dira. Beste lurraldeetara egiten diren joan-etorriak bigarren mailako izaera dute, soilik %1,8, hain zuzen, 63.291.

Taula 7. EAEko egoiliarrek eskualdeko burututako joan-etorri guztien banaketa


Latorria	HELMUGA						ARABA						BIZKAIA						GIPUZKOA						KANPOKOAK						
	Kantauri Arabarra	Gorbeako mendi inguruak	Vitoria-Gasteiz	Arabako Lautada	Arabako Mendialdea	Erioxa Arabarra	Arabako Ballarak	Arabako Ballarak	Arabako Ballarak	Araba guztizkoa	Arria-Nerbioi	Durangaldea	Enkartzatzaok	Gernika-Bermeo	Bilbo	Bilbo Handia	Markina-Ondarra	Pentzia-Mungia	izkaiko guztizkoa	Debagotena	Bidasoa Beherea	Debarrena	Donostia-San Sebastián	Donostialdea	Goierni	Tolosaldea	Urola Kosta	Gipuzkoako guztizkoa	Kanpoko guztizkoa	EAEko guztizkoa	
Arabara	68.259	274	2.168	78		67	70.946	4.356	725	804	1.126	4.341	5.116	355	16.823				1.297							618	1.916		89.584		
	288	8.072	6.680	100	206	87	15.332	579	182		464	95			1.321	828		79							26	932	150	17.755			
	2.148	6.352	659.280	16.088	2.604	1.231	690.035	1.564	1.575	735	653	6.371	7.379	554	21.034	6.555	328	1.717	288					1.437	2.299	12.524	4.085	72.779			
	78	138	15.992	24.332	115	407	41.121				56	160	78	117	294	232		144						72	393	840	680	42.935			
		206	2.691	90	5.371	192	8.572	514							214	322			90							322	168	9.276			
		1.270	1.296	398	22	183	6.227	9.310							826												337	6.177	25.338		
	67	116	2.296	398	22	183	6.227	9.310							247													1.969	11.526		
Arabako guztizkoa	70.839	15.156	690.277	41.146	8.510	17.959	9.327	853.214	6.499	2.996	1.834	13.837	12.702	324	40.757	7.936	328	3.328	288						1.036	2.299	16.971	13.230	924.172		
Arria-Nerbioi	4.264	605	1.630				6.500	31.721	3.350		291	4.814	5.285	194	45.656	184		224								350	969	96	53.221		
Durangaldea	725	182	1.375			106	2.587	3.350	191.595		2.850	15.472	14.993	1.409	231.689	4.381		9148	905	201						1.148	15.938	785	250.998		
Enkartzatzaok	897		864		56		1.817			56.258	225	7.469	8.290	191	72.433	234		125									359	1.280	75.869		
Gernika-Bermeo	1.126		1.522	56			2.704	291	2.498	225	92.002	8.133	5.552	983	112.465			118									118	273	273	115.560	
Bilbo	4.948	464	8.376	97	97	311	14.189	4.570	15.199	7.294	8.106	897.013	177.127	2.518	1.119.683	549		148	15.19	6.099	295					817	10.855	4.656	1.149.383		
Bilbo Handia	5.082	95	6.129	78		34	11.418	5.073	16.193	8.339	6.827	174.158	1.049.595	683	276.59	1.832		444	4.251	1.111						323	10.187	13.955	1.324.647		
Markina-Ondarra	355		85			120	205	1.187			848	2.180	1.074	53.530	58.820	555		2.378	356	109						302	3.700	375	63.100		
Pentzia-Mungia	17.297	1.347	20.736	133	154	417	40.329	45.200	232.042	72.907	114.108	1.172.373	1.288.869	59.102	3.055.339	7.735		148	14.086	11.961	1.716					3059	42.513	22.116	3.160.297		
Bizkaiko guztizkoa	944	944	6.439	232	322		7.936	184	4.381	234		549	1.832	534	7.714	155.473		3.548	3.135	289						2.068	170.224	116	185.990		
Debagotena												148			148			183.687	103	17.008	10.706					619	213.694	6.678	220.521		
Bidasoa Beherea																		103	118.330	2.514	474					2.970	128.457	237	142.842		
Debarrena			481				481	211	9.023		118	92	687	2.378	13.667	3.309		269	14.086	11.961						128	128.457	237	237	142.842	
Donostia-San Sebastián	1.297	79	2.755	144		90	4.366	92	1.060	125		5.808	3.736	360	11.537	3.275		2.348	491.719	76.438						10.562	67.662	4.455	638.020		
Donostialdea			241	47		247	288	201				133	1.111	109	1.554	472		75.481	256.860	2.670						3.020	356.026	758	356.625		
Goierni			1.074	72		247	1.993	503				1.599	2.113		4.215	4.886		786	5.116	4.246						2.439	178.520	1.550	185.678		
Tolosaldea	618	26		393			1.036						242		242			387	1.412	128						1.477	118.492	1.659	121.429		
Urola Kosta			2.651				2.651	350	937			817	452	492	3.107	2.414		2.788	10.805	2.944						1.641	193.671	279	193.707		
Gipuzkoako guztizkoa	1.915	1.048	13.641	887	322	337	18.151	837	16.104	359	118	10.036	10.172	3.809	42.183	170.215		213.165	128.505	616.314	358.357	179.041	118.161	192.966	1.976.745	15.732	2.052.811				
Kanpokoak	239	78	8.244	680	168	6.298	1.957	17.665	1.466	1.124	469	5.146	15.303	375	24.397	273		6.896	237	5.544						866	17.449	3.779	63.291		
Kanpoko guztizkoa	239	78	8.244	680	168	6.298	1.957	17.665	1.466	1.124	469	5.146	15.303	375	24.397	273		6.896	237	5.544						866	17.449	3.779	63.291		
EAEko guztizkoa	17.629	732.896	42.846	9.163	25.012	11.531	929.359	52.836	252.607	75.929	116.529	1.146.592	1.327.047	63.610	3.162.677	186.161	220.230	143.157	637.147	361.365						199.189	2.053.679	54.857	6.201.572		

Taula 8. EAEko egoiliarrek eskualdeko burututako joan-etorri guztien banaketa. Portzentajeak jatorriaren arabera

Jatorria	Heimuga	ARABA						BIZKAYA								GIPIUZKOA							KANPOKOAK										
		Kantauri Arabarra	Gorbeako mendi ingururak	Vitoria-Gasteiz	Arabako Lautada	Arabako Mendialdea	Errioxa Arabarra	Arabako Bailarak	Arabako guztizkoa	Aratza-Nerbioi	Durangaldea	Enkartzatzeak	Gernika-Bermeo	Bilbo	Bilbo Handia	Markina-Ondarra	Plentzia-Mungia	Izkaiko guztizkoa	Debagoiena	Bidasoa Beherea	Debarrena	Donostia-San Sebastián	Donostialdea	Goierri	Tolosaldea	Urola Kosta	Gipuzkoako guztizkoa	Kanpokoak guztizkoa	EAEko guztizkoa				
Arabara	Kantauri Arabarra	762	0,3	2,4	0,1	0,1	79,1	4,9	0,8	0,9	1,3	4,8	5,7	0,4	188	1,4	0,7	2,1	100,0														
	Gorbeako mendi ingururak	1,6	45,5	37,1	0,6	1,2	86,5	3,3	1,0			2,6	0,5		74	0,4	0,1	5,3	0,8	0,8													
	Vitoria-Gasteiz	0,3	0,9	90,6	2,2	0,4	0,2	94,8	0,2	0,2	0,1	0,1	1,2	0,0	2,9	0,2	0,0	1,7	0,6	0,6													
	Arabako Lautada	0,2	0,3	37,2	56,8	0,3	95,8					0,4	0,2		0,7	0,3		2,0	1,6	1,6													
	Arabako Mendialdea		2,2	29,0	1,0	57,9	2,1	92,4				1,0			1,3	2,3		3,5	1,8	1,8													
	Errioxa Arabarra			5,0	0,8	64,5	0,7	71,0		2,0		1,2			3,3	0,4		1,3	24,4	24,4													
	Arabako Bailarak	0,6	1,0	19,9	3,5	0,2	1,6	80,8				0,8	0,3	1,0	2,1	0,4		0,9	1,4	1,4													
	Arabako guztizkoa	7,7	1,6	74,7	4,5	0,9	1,9	92,3	0,7	0,3	0,2	0,2	1,5	1,4	0,0	4,4	0,4	0,0	1,8	1,4	1,4												
	Bizkaira	Aratza-Nerbioi	8,0	1,1	3,1			12,2	59,6	6,3		0,5	9,0	9,9	0,4	85,8	0,3	0,4	1,8	0,2	0,2												
		Durangaldea	0,3	0,1	0,6			1,0	1,3	76,3		1,1	6,2	6,0	0,6	92,3	1,7	0,5	6,3	0,3	0,3												
Enkartzatzeak		1,2	1,1	1,1	0,1		2,4				74,1	0,3	9,8	10,9	0,3	95,4	0,3	0,2	0,5	1,7													
Gernika-Bermeo		1,0	1,3	0,0			2,3	0,3	2,2	0,2	0,2	7,96	7,0	4,8	9,9	2,4	97,3	0,1	0,0	0,1													
Bilbo		0,4	0,0	0,7	0,0	0,0	0,0	1,2	0,4	1,3	0,6	0,7	7,72	15,4	0,2	1,6	97,4	0,0	0,0	0,1	0,5	0,0	0,1	0,2	0,0	0,0	0,0	0,8	0,4	0,4	0,4	0,4	
Bilbo Handia		0,4	0,0	0,5	0,0		0,0	0,9	0,4	1,2	0,7	0,5	13,1	7,92	0,1	2,1	97,3	0,1	0,0	0,1	0,5	0,0	0,1	0,2	0,0	0,0	0,0	0,8	1,1	1,1	1,1	1,1	
Markina-Ondarra				0,1			0,2	0,3	1,9			1,3	3,5	1,7	84,8	93,2	0,9	3,8	5,9	0,6	0,2												
Plentzia-Mungia		0,3		0,4			0,7	0,2	1,6	0,1	2,3	14,4	21,1		58,7	98,4	0,2	0,2	0,3	0,5	0,5	0,2											
Bizkaiko guztizkoa		0,5	0,0	0,7	0,0	0,0	0,0	1,3	1,4	7,3	2,3	3,6	35,4	40,8	1,9	4,0	96,7	0,2	0,0	0,4	0,4	0,1	0,1	0,1	0,0	0,1	1,3	0,7	0,7	0,7	0,7	0,7	
Gipuzkoa		Debagoiena		0,5	3,5	0,1	0,2	4,3	0,1	2,4	0,1		0,3	1,0	0,3	4,1	83,6	1,9	1,7	0,2	2,9	0,1	1,1	91,5	0,1	1,1	91,5	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	
	Bidasoa Beherea											0,1			0,1		83,3	0,0	7,7	4,9	0,1	0,6	0,3	96,9	3,0	3,0	3,0	3,0	3,0	3,0	3,0	3,0	
	Debarrena			0,3			0,3	0,1	6,3		0,1	0,7	0,5	1,7	0,2	9,6	2,3	0,1	82,8	1,8	0,3	0,4	0,1	2,1	89,9	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2
	Donostia-San Sebastián	0,2	0,0	0,4	0,0	0,0	0,7	0,0	0,2	0,0		0,9	0,6	0,1	1,8	0,5	2,5	0,4	7,71	12,0	1,0	1,0	1,7	1,7	96,8	0,7	0,7	0,7	0,7	0,7	0,7	0,7	0,7
	Donostialdea			0,1	0,0		0,1		0,1	0,1		0,0	0,3	0,0	0,4	0,1	3,1	0,1	21,0	71,6	0,7	1,7	0,8	99,3	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2	0,2
	Goierri			0,6	0,0		0,8		0,3			0,9	1,1		2,3	2,6	0,1	0,4	2,8	2,3	81,5	5,1	1,3	96,1	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8
	Tolosaldea	0,5	0,0		0,3		0,9						0,2		0,2	0,3	1,2	0,1	8,7	5,3	8,0	7,28	1,2	97,6	1,4	1,4	1,4	1,4	1,4	1,4	1,4	1,4	1,4
	Urola Kosta			1,3			1,3	0,2	0,5			0,4	0,2	0,2	1,6	1,2	0,3	1,4	5,4	1,5	1,3	0,8	85,0	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1
	Gipuzkoako guztizkoa	0,1	0,1	0,7	0,0	0,0	0,9	0,0	0,8	0,0	0,0	0,0	0,5	0,2	2,1	8,3	10,4	6,3	30,0	17,5	8,7	5,8	9,4	96,3	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8	0,8
	Kanpokoak	Kanpokoak	0,4	0,1	1,30	1,1	0,3	2,79		2,3	1,8	0,7	8,1	24,2	0,6	0,8	38,5	0,4	10,9	0,4	8,8	1,6	2,7	1,5	1,4	27,6	6,0	6,0	6,0	6,0	6,0	6,0	6,0
Kanpokoak guztizkoa		0,4	0,1	1,30	1,1	0,3	2,79		2,3	1,8	0,7	8,1	24,2	0,6	0,8	38,5	0,4	10,9	0,4	8,8	1,6	2,7	1,5	1,4	27,6	6,0	6,0	6,0	6,0	6,0	6,0	6,0	6,0
EAEko guztizkoa	1,5	0,3	11,8	0,7	0,1	15,0	0,8	4,1	1,2	1,9	18,5	21,4	1,0	2,1	51,0	3,0	2,3	10,3	5,8	3,0	1,9	3,2	33,1	0,9	0,9	0,9	0,9	0,9	0,9	0,9	0,9	0,9	0,9


Irudia 1.

Joan-etorrien banaketa jatorri eskualdearen arabera



Irudia 2.

Joan-etorrien banaketa helmuga eskualdearen arabera




3.1. Joan-etorrien banaketa modalitatearen arabera

Euskal biztanleriak bere mugimendu beharrak asetzeko erabiltzen duen garraibide nagusia, oinezkoarena da (joan-etorrien %44,8). Halaber, bigarren garraibide nagusia %35,8 joan-etorriekin, autoarena da. 2007ko datuei dagokienez, erregistroetako igoera benetan esanguratsua bizikleten erabilerarenak izan du, eguneko 100.000 joan-etorri gainditzen baititu, erabileraren %1,9a lortuz.

Irudia 3.

EAEko³ egoiliarren joan-etorrien banaketa modalitatearen arabera



Biztanleriak burututako joan-etorri ia guztiak etapa bakarrekoak izaten dira. Mugikortasun beharrak asetzeko modalitateen arteko erabilera aukera ahula da, izan ere, bi etapa dituzten joan-etorriak soilik %1,2 ordezkatzen baitute, eta hiruko etapetakoek %0,04. Bizkaia da, etapa anitzeko joan-etorri gehien burutzen diren lurraldea, zergatik? Bada, bertan, Gipuzkoan eta Araban baino garraibide kolektiboaren eskaintza handiagoa delako, eta probintziaren lurralde egituraren arabera Bilbon metropolitarrak testuinguruaren eragina eta pisua nabarmentzen delako.

Taulara 10. Joan-etorrien banaketa etapen kopuruaren eta Lurralde Historikoen arabera

Etapak	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%
1	928.110	99,5	3.150.933	98,3	2.046.022	99,2	6.125.065	98,8
2	4.144	0,4	52.945	1,7	15.754	0,8	72.844	1,2
3	133	0	2.385	0,1	145	0	2.662	0,0
Guztira	932.387	100,0	3.206.263	100,0	2.061.921	100,0	6.200.572	100,0

³ Automobila: Taxien, auto (gidari)-en eta auto (bidaiari)-en datuak hartzen ditu bere barne.
 Autobusa: Autobus diskrezionalen, hiriko autobusen eta hiri-artereko autobusen datuak hartzen ditu bere barne.
 Trena: Metro, Renfe, Euskotren, Tranbia eta FEVE-ren datuak hartzen ditu bere barne.
 Beste batzuk: Bizkaia zubiko, ordainpeko igogailuetako, funikular eta besteetako datuak hartzen ditu bere barne.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EGOILIARREN MUGIKORTASUN OROKORRAREN KARAKTERIZAZIOA

Garraibide ezberdinen erabilera, neurri handi batean, burutzen diren joan-etorrien tipologiaren arabera zehazten da. Distantzia gutxiko joan-etorrietan, motorizatu gabeko ibilgailuek eskuratzen dute garrantzia, nahiz eta, distantziak handitzen diren heinean, protagonismoa galtzen duten, motorizatutakoenen alde. Hori dela eta, udalerrri barneko joan-etorrietan oinezkoen modalitatea %67,4ra iristen da eta eskualde barneko joan-etorrietan aldiz, portzentaje hau %8,9ra murrizten da; ondorioz, gainontzekoetan ia ez du ordezkartzarik.

Alderaketa bat eginaz, udalerrri beraren baitan gertatzen diren joan-etorrietan autoaren erabilera soilik %18,9koa da. Halaber, eskualde beraren baitan gertatzen diren bidaietan portzentaje hau %61,8era igotzen da, eta gainontzeko joan-etorrietan bere erabilera %80an kokatzen da, horrela, garraibide nasusiena izanik.


Azkenik, garraibide kolektiboak (autobusak eta trenak) batez ere, eskualde beraren baitan gertatzen diren joan-etorrietan erabiltzen dira (autobusa %10,7 eta trena %14,7), nahiz eta beti mantentzen duten autoaren atzetik bigarren mailako izaera.

Taula 11. **Joan-etorrien banaketa tipologia eta garraibidearen arabera (%)**

Modalitatea	Udalerrri barnekoa	Eskualde barnekoa	Lurralde barnekoa	Lurraldeen artekoa	Kanpokoak	Guztira EAE
Oinez	64,8	8,1	0,3	0,8	0,7	44,8
Bizikletaz	2,6	0,8	0,3	0	0	1,9
Motorizatu gabea	67,4	8,9	0,5	0,8	0,7	46,7
Auto gidaria	15,4	53,2	67,4	69	67,8	30
Auto bidaiaria	3,4	8,2	11,4	12,9	18,8	5,7
Taxia	0,1	0,4	0,1	0	0,5	0,1
Autoa	18,9	61,8	78,9	82	87,2	35,8
Motozikleta	1	1	0,8	0,6	0,8	0,9
Herriartekoa	0,3	6,9	5,8	3,8	1,4	2,2
Urbanoa	5,6	0,2	0	0	0	3,8
Lineaz kanpokoak	2	3,5	1,5	4,5	2,5	2,4
Autobusa	8	10,7	7,3	8,3	3,9	8,4
FEVE	0	0,1	0,4	0	0	0
RENFE	0,2	2,3	3,1	2,4	0,8	0,9
Tranbia	0,7	0	0	0	0	0,5
Euskotren	0,2	1,5	2,2	2,1	0	0,7
Metroa	2,9	10,9	3,4	0	0	4,4
Trena	4	14,7	9,1	4,5	0,8	6,5
Hegazkina	0	0	0	0	2,9	0,1
Modalitate anitz.	0,5	2,1	3,3	3,8	3,6	1,2
Besteak	0,3	0,9	0,1	0	0,2	0,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Mugikortasun okupazionala, ikasketa eta lan arrazoiek sortutako joan-etorriengatik txertatua izan dena, EAEn gertatzen diren joan-etorrien %49,6aren erruduna da, %37,3 eta %12,3 portzentajeekin, hurrenez hurren. Halaber, aisiak sortzen dituen joan-etorriak bigarren lekuan kokatuko lirateke %23,4eko portzentajearekin eta kudeaketa pertsonal nahiz familiarrak %13ko portzentajearekin. Aisiaren esanguratsutasunaren areagotzea azken urteotan gertatzen ari den aldaketa nabarmena da eta beste lurraldeetan burutzen diren antzeko azterketetan ere hauteman da aipatutakoa.

Irudia 4.

Joan-etorrien banaketa edo arrazoen arabera⁴

EAEn gertatzen diren joan-etorrien tipologiari dagokionez, gehiengoak udalerrri barneko izaera du (%61,5), hau da, udalerrri beraren baitan gertatzen dira. Araba da Lurralde Historikoetatik portzentaje pixka bat altuagoa duena, %63,6. Kanpoko joan-etorriak guztietatik soilik %2,3 besterik ez dute ordezkatzen baina, horiek ere probintzi honetan dira altuenak %6,5ra hurbilduz. Horren azalpena, mugakideak diren udalerrietako biztanleriari zuzendutako oinarrizko beharretarako sarbideak (Arabako Mendialdea eta Errioxa Arabarra) beste Autonomi Erkidegoetan daudelako da.

Taula 12. Joan-etorrien banaketa bizilekuaren nolaketan eta Lurralde Historikoaren arabera

Izaera	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Guztira EAE	
	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%
Udalerrri barnekoa	764.874	63,6	2.023.634	59	1.336.891	63,1	4.125.400	61,5
Eskualde barnekoa	54.476	11,3	764.152	20,4	431.400	21,6	1.250.028	18,9
Lurralde barnekoa	33.345	12,6	268.574	15,2	207.951	10,9	509.870	13,1
Lurraldeen artekoa	48.590	6	100.491	4,2	51.824	3,1	200.905	4,2
Kanpoko	31.101	6,5	49.413	1,2	33.854	1,3	114.368	2,3
Guztira	932.387	100,0	3.206.263	100,0	2.061.921	100,0	6.200.572	100,0


⁴ Lana: lanen zein ohiko lanen datuak hartzen ditu bere gain.

Erosketak: etxeko erosketak zein erosketa pertsonalak hartzen ditu bere gain.

Kudeaketa pertsonalak eta familiarrak: beste pertsonen zaintza edo laguntza eta kudeaketa pertsonal zein familiarrak hartzen ditu bere gain.


Irudia 5.

EAEko joan-etorriak garraibide motaren arabera




Irudia 6.

Joan-etorrien banaketa jatorri eskualdearen eta erabilitako garraibide motaren arabera




Irudia 7.

Joan-etorrien banaketa helmuga eskualdearen eta erabilitako garraiobide motaren arabera



Irudia 8.

Joan-etorrien banaketa motorizazioaren eta xehapenaren arabera



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EGOILIARREN MUGIKORTASUN OROKORRAREN KARAKTERIZAZIOA

EAEen egunean burutzen diren joan-etorrien %51,9a emakumeek egiten dituzte. Emakumezkoen kolektiboa motorizatu gabeko garraibide gehiago erabiltzeagatik ezaugarritzen da (%53,1 emakumezkoek eta gizonezkoek %39,8) eta baita garraio kolektibo gehiago erabiltzeagatik ere (%15,6 vs %9,3). Aipaturiko bi elementuek eragiten dute emakumezkoek autoari emandako erabilera gizonen erabiltzen dutenaren erdia izatean (%27,5 emakumezkoak, eta %44,8 gizonen erabiltzen dutenak).

Taula 13. **Joan-etorriak modalitatearen eta sexuaren arabera**

Modalitatea	Emakumezkoak		Gizonezkoak		Guztira EAE	
	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%	Joan-etorriak	%
Motorizatu gabea	1.708.227	53,1	1.186.690	39,8	2.894.917	46,7
Autoa	884.075	27,5	1.335.592	44,8	2.219.667	35,8
Lineazko kanpoko autobusa	58.003	1,8	89.800	3	147.804	2,4
Errepidezko garraibide kolektiboa	257.203	8,0	117.635	3,9	374.838	6,0
Trenbidezko garraibide kolektiboa	246.011	7,6	158.254	5,3	404.266	6,5
Motozikleta	11.036	0,3	47.219	1,6	58.255	0,9
Hegazkina	1.422	0,0	1.894	0,1	3.316	0,1
Modalitate anitza	42.999	1,3	32.508	1,1	75.507	1,2
Besteak	9.462	0,3	12.541	0,4	22.003	0,4
Guztira	3.218.437	100,0	2.982.134	100,0	6.200.572	100,0


Sexuaz gain, garraibideen erabilera pertsonen adinaren arabera diferentzia nabarmenak pairatzen dira. Hain zuzen, muturreko segmentuak dira, alegia, pertsona nagusiak eta gazteak, neurri handiagoan motorizatu gabeko garraioak erabiltzen dituztenak, batez ere, ibilgailuaren sarbideagatik eta eskuragarritasunagatik. Halaber, autoa gehiago erabiltzen dute 20tik 64 urte adin tarteko pertsonak, eta noski, bertan ere gizonen kolektiboa nabarmenki nagusitzen da autoaren erabilera, bi kasuetan %50eko barneratze kuota baino altuagoarekin.

Taula 14. **Joan-etorriak modalitatearen eta sexua adin taldeen arabera (%)**

Modalitatea	0-19		20-44		45-64		65 eta gehiago	
	Emakum.	Gizonez.	Emakum.	Gizonez.	Emakum.	Gizonez.	Emakum.	Gizonez.
Motorizatu gabea	53,8	56,3	40,1	25,9	54,5	35,3	75,3	69,0
Autoa	16,4	13,5	38	58,3	28,3	52	11,7	21,1
Trenbidezko garraibide kolektiboa	7	5	10,5	5,7	6,9	5,8	3,6	3,7
Errepidezko garraibide kolektiboa	6,8	5,5	8,5	4,4	8	2,5	7,7	4,5
Lineaz kanpoko autobusa	13,2	17,3	0,7	1,5	0,4	1,2	0,4	0,3
Hegazkina	0	0,2	0,1	0,1	0	0	0	0,0
Motozikleta	0,4	0,6	0,5	2,7	0,4	1,3	0	0,3
Modalitate anitza	2,2	1,4	1,6	1,1	1,1	1,1	0,7	0,8
Besteak	0,2	0,2	0,1	0,3	0,5	0,8	0,5	0,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Irudia 9.

Joan-etorrien banaketa garraiobidearen eta adinaren arabera



Biztanleriaren mugikortasunak ekintza ekonomikoaren duen erlazioarekin aztertuz, honakoa behatu daiteke: alde batetik, aktiboak diren pertsonen kolektiboaren mugikortasuna handiagoa da, zehazki, lanpetuta daudenena, izan ere, praktikoki joan-etorrien erdiak egiten baitituzte (%49,4); erretiratuak direnek eta pentsioa jasotzen dutenek joan-etorrien %19,2a osatzen dute eta ikasleek, %14a. Kolektibo hauetako bakoitzak erabiltzen duen garraiobideari dagokionez, agerian gelditzen da horietako batzuk motorizatu gabeko garraioak gehiago erabiltzen dituztela besteek baino, batez ere, etxeetako zereginak egiten dituzten pertsonen kolektiboak (%71,2) eta pertsona erretiratuak eta pentsioa jasotzen dutenak (%69,5), jarraian, langabetuak (%56) eta ikasleak (%48,9). Halaber, pertsona lanpetuek (jarduera laborekin) joan-etorrien %52,2a autoz burutzen dute.

Taula 15. **Joan-etorriak garraiobidearen eta erlazioatutako ekintzaren arabera (%)**

Modalitatea	Pertsona lanpetuak	Pertsona langabetuak	Ikasleak	Erretiratuak eta pentsionistak	Etxeko zereginak	Guztira EAE
Motorizatu gabea	30,7	56,0	48,9	69,5	71,2	46,7
Autoa	52,2	27,7	19,1	18,8	16,9	35,8
Garraio publikoa tren	7,6	6,7	8	3,7	4,2	6,5
Garraio publikoa errepidea	5,2	7,7	8,3	5,9	6,1	6
Lineaz kanpoko autobusa	1,1	0,0	12,4	0,6	0,1	2,4
Modalitate anitza	1,2	1,3	2,4	0,7	0,6	1,2
Motozikleta	1,5	0,5	0,6	0,2	0	0,9
Besteak	0,3	0,2	0,2	0,3	0,9	0,4
Hegazkina	0,1	0,0	0,1	0	0	0,1
Guztira	100,0	100,0	100	100,0	100,0	100,0

3.2. Motorizatu gabekak


Atal honetan, EAEn motorizatu gabeko garraioen bidez (oinez eta bizikletaz) eginiko joan-etorrien azterketa egiten da, kontuan hartuz zein arrazoik sortzen dituzten eta joan-etorrien tipologia, horien abiapuntu eta helmugaren arabera.

3.2.1. Oinez

EAEn oinez egunero 2.777.979 joan-etorri egiten dira, izan ere, euskal biztanleriak bere mugikortasun beharrak asetzeko gehien erabilitako garraiobidea baita (%44,8). Joan-etorri hauek sortzearen arrazoi nagusia aisia da, %40,1 eko portzentajea izanik. Mugikortasun okupazionalak soilik joan-etorrien %28,4a sortzen du (lana eta aisia).

Irudia 10.

Oinez egindako joan-etorrien banaketa helburuaren arabera



Lehen aipatu den bezala, oinez egiten diren joan-etorri ia guztiak udalerrri barnekoak dira (%96,2), soilik mugakideak diren zonetan egiten diren joan-etorriak dira udalerrri edo eskualde gainekoak.

Taula 16. Oinez egindako joan-etorrien banaketa lurralde eremuaren arabera

Joan-etorri mota	%
Udalerrri barnekoa	96,2
Eskualde barnekoa	3,6
Lurraldeen artekoa	0,1
Lurralde barnekoa	0,0
Kanpokoak	0,0
Guztira	100,0

Hiru hiriburuetan EAEn egiten diren oinezko joan-etorri guztietatik %41 eko portzentajea biltzen da, 1.139.800. Bilbon %48,1 oinezko joan-etorri egiten dira, Vitoria-Gasteizen %9 eta azkenik, Donostian %21.


3.2.2. Bizikleta

